

Arrakastaren sekretua Garbage

Sortu zenetik, rock alternatiboaren jarraitzaile eta kritikari askoren mesfidantza jasane behar izan du Garbagek. Butch Vig arrakasta handiko ekoizlea izan zen 90eko hamarkadaren hasieran -Nirvanaren *Nevermind*-en atzean bera zegoen-, eta beste bi ekoizlerekin -Duke Erikson eta Steve Marker- eta Shirley Manson abeslari ezezagunarekin batera Garbage sortu zuenean, produktu prefabrikatutzat jo zuten askok eta askok.

Iritziak iritzi, laukoteak izugarritzko arrakasta lortu zuen bere lehendabiziko diskoarekin -*Garbage*-. Pop eta rock melodiak ziren lan haren oinarria, baina erritmoek, samplerrek eta elektronikaren erabilerak ematen zieten ukitu *modernoari* eta Shirleyren karisma eta irudiari esker, erraz konektatu zuen musikazale askorekin. *Queer*, *Vow*, *Only happy when it rains* eta *Stupid girl* singleen arrakastak salmentetan ere ondorioak izan zituen: 5 milioi disko mundu guztian. «Lehenengo

diskoa kaleratu genuenean, jende askok gurekiko zalantzak zituen; badakizu, hiru ekoizle ginen eta irudi prefabrikatu samarra zuen abeslari bat aurkitu genuen. Baina nirekin lan egin duen

buruak: «Rock talde bat gara, eta pop abestiak egiten ditugu, nahiz eta gero samplerrak eta elektronika gehitzen dizkiogun. Beti egiten dugu kantua gitarra akustiko batekin segitzeko moduan».

Zalantzak argitu nahi dituenak Donostiako kiroldegira joan beharko du igandean. ■ mikel lizaralde

edozein taldek baino talde izaera handiagoa du Garbagek», adierazi du Butch Vigek.

Lehen diskoak erdietsitako arrakastaren ondoren, haren segida -*Version 2.0*- grabatzeko denbora dezente hartu du taldeak. 1997ko apirilean sartu ziren grabaketa estudioan eta ia urtebete eman zuten bertan. Vigek dioenez, «behartuta ez bageunde, ez genuke inoiz amaituko. Margo bat bezalakoa da diskoa, nahi dituzun kapak ematen dizkiozu eta dena aldatzen doa. Azkenean diskoa kaleratu behar dugula gogorarazten digute».

Teknologiak paper garrantzitsua du Garbagen soinu- nuan, baina hala ere, bere kantuen oinarriak poppiak direla argitzen du taldeko

Butch Vigen taldeak *Version 2.0* diskoa aurkeztuko du Donostiako kiroldegian



■ mikel lizaralde

Taldearen eta ikusleen arteko komunikazioa bada zuzeneko emanaldi on baten seinale, esperientzia gutxi pareka daitezke Make Up-en kontzertu batekin. Washingtongo taldeak gaur egun dagoen zuzeneko eskaintza ikaragarrienetakoa dauka; katartikoa, basatia, jende guztia txundituta uzten duten horietakoa, eta orain dela urte eta erdi Lasarten eta Bilbon eman zituen kontzertuetan hala erakutsi zuen.

Make Up-ek soul musika egiten du -Gospel Yeh-Yeh deitzen diote beraiek-, soul

Michelle Mae baxu jolea eta James Canty gitarra eta teklatu jolea zuzeneko bi disko- rekin estreinatu ziren orain dela hiru urte:

Destination: Love; *Live at Cold* eta *Afterdark*. Bi lan horiek Make Up-en zuzenekoaren biluztasuna agerian uzten zuten, eta baita rock & rollaren aurrean duten ikuspegi garbia ere. Izan ere, The Beatlesen garaitik rock & rollaren industria irentsi duen

Make Up Soul katartikoa

primitibo eta grinatsua, rock & rollez, funkeztu eta punkeztu bustiriko soula. Azken batean, askoz gertuago daude The Jon Spencer Blues Explosion eta The Delta 72 taldeen basakeriatik sofistika- zio baina.

Zuzeneko emanaldietan eskaintzen du Make Up-ek daukan onena, eta horren adibide garbia bere diskografian aurki dezakegu. Ian Svenonius abeslaria -James Brownen sasikume antzeko bat-, Steve Gamboa bateria,

satzen ditu; hitz batean: gospela.

Bi disko haien ondotik beste pare bat kaleratu ditu Washingtongo taldeak: *Sound verité* -Love talde maitatuaren *Forever change* diskoaren azala gogoratuz- eta *In mass mind*, zuzeneko grina estudioa ere eraman daitekeela argi erakusten duten bi lan.

Make Up-en jarduna ez da Lp-etara eta kontzertuetara mugatzen, eta proiektua abian jarri zenetik hainbat single kaleratu ditu Dischord eta bere lagun Calvin Johnsonen K diskoetxearen eskutik. Horiek guztiak -A eta B aldeak- *I want some* izeneko CD eta Lp bikoitzean bildu dituzte oraintsu, eta hori aurkeztuko du, hain zuzen ere, Bilbon. Esperientzia katartikoa izango da. Zalantzarik gabe.

kapitalismoaren aurka abesten du Svenonius-ek, eta alienazioaren aurrean, izpiritualtasuna eta katarsia proposatzen ditu; hitz batean: gospela.

Elkartasun brigadak

Bilbo	94 479 07 03
Gasteiz	945 28 11 93
Iruña	948 20 60 55
Donostia	943 34 04 04

Cuba
Mexico
Guatemala
Nicaragua
Colombia

KOMITE INTERNAZIONALISTAK